# Egoera ekonomikoa eta Merkatuak
# ASTEKO LABURPENA

2018ko irailaren 3tik 7rako astea

## ➢ INGURU MAKROA:

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI…

## ➢ ASTE HONETAN MERKATUETAN

## ➢ GURE IKUSPEGIA

# INGURU MAKROA



# ASTEKO DATUEN PODIUMA

## ɛUROGUNEA: PMI KONPOSATUA




### Datuaren analisia

ɹroguneko hazkunde ekonomikoak ez zuen apenas aldaketarik izan abuztuan. Izan ere, **ɹroguneko Jarduera Osoaren behin betiko PMI Indize Konposatua** 54,5eko mailara heldu zen, ɹrreko flash aurreikuspena baino pixka bat gorago. Nolanahi ere, igoera txiki bat baino ez zuen ɜn uztaileko mailaren aldean (54,3). Jarduera osoak bost urtez jarraian egin zuen gora, nahiz eta ɔuztuko igoera askoz txikiagoa izan zen urte hasierako erritmo bizien aldean. Hala manufakturen ꞉oizpenak nola zerbitzuen sektoreko jarduerak antzeko erritmoan eta pixka bat bizkorrago egin ɪten gora.

### Adierazlearen azalpena

ɪroguneko zerbitzuen eta manufakturen sektoretako 5.000 enpresari baino gehiagori hilero ʝaltzen zaien galdetegi baten erantzunetatik lortzen da PMI Konposatua. Bi sektore horien aldean onomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, ste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, ate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan hi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkurtzen ari den seinale.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: ENPLEGUAREN DATUAK




#### Datuaren analisia

ʞonomiak **201.000 enplegu** berri sortu zituen abuztuan, langabezia-tasa % 3,9an mantentzen ɡundu zuena (beste gauza batzuen artean). Enpleguaren sorreraren datua adituek aurreikusitakoa ɩino handiagoa izan zen, 190.000 lanpostu berri espero baitzuten. Urteko datuei begira, soldatek 2,9 egin zuten gora, joan den uztaileko % 2,7ko igoeraren aldean; soldaten urte arteko igoerarik ındiena 2009ko maiatzetik. Gainera, laneko parte-hartzea % 62,7an mantendu zen. Labur esanda, ΞBetako enplegu-tasa elkarren segidako 95. hilabetez hazi zen, lan-merkatuak izan duen oparoaldi ɔladarik luzeena.

#### Adierazlearen azalpena

ıplegu-txostena hilero argitaratzen du Estatu Batuetako Lan Sailak. Estatu Batuetako lan-ɘrkatuaren egoerari buruzko txosten osatu bat da, eta hainbat datu aurki daitezke bertan; horien ːean nabarmenenak: enpleguaren sorrera (nekazaritza-sektorea kanpo utzita), langabezia-tasa a soldaten bilakaera. Txosten honi esker, Estatu Batuetako ekonomiaren bilakaeraren gaineko ɔnostiko bat egin daiteke. Lan-merkatua hazten ari bada, herritarren errenta erabilgarria handitu iten da. Beraz, kontsumitzailearen gastua igo daiteke, BPGd-aren igoera bat eragingo lukeena, a, ondorioz, herrialdearen ekonomiaren hobekuntza.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

## JAPONIA: PMI ZERBITZUAK/KONPOSATUA




### Datuaren analisia

rbitzuen sektoreko jarduerak azken lau hiletako hazkunderik handiena izan zuen abuztuan, lmentek gora egin zutelako eta denda berriak ireki zirelako, besteak beste. **Markit/Nikkeik estaturiko zerbitzuen sektoreko PMI indizea** 51,5era igo zen, uztailean baino bi hamarren hiago (51,3). **PMI Konposatua**, bestalde, 52,0ra igo zen abuztuan, aurreko hileko 51,8tik.

### Adierazlearen azalpena

PMI indize konposatua fabrikazioaren eta zerbitzuen sektoreetako enpresa garrantzitsuenetako erosketen profesionalei eta exekutiboei hilero egiten zaizkien galdetegien erantzunetatik lortzen da. Bi sektore horien aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkurtzen ari den seinale.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

## XINA: CAIXIN PMI ZERBITZUAK/KONPOSATUA




### Datuaren analisia

ɛrbitzuen sektorearen hazkundea ahuldu egin zen berriro abuztuan, nahiz eta negozio berriek ‹ka bat gora egin zuten uztaileko azken bi urtetako minimotik. **Caixin/Markiten PMI indizea** ,5era jaitsi zen uztaileko 52,8tik, 10 hiletako bere mailarik baxuena. **Caixinen PMI Konposatuak** ɘ behera egin zuen abuztuan, 52 mailaraino, uztaileko 52,3tik.

### Adierazlearen azalpena

PMI indize konposatua fabrikazioaren eta zerbitzuen sektoreetako enpresa garrantzitsuenetako erosketen profesionalei eta exekutiboei hilero egiten zaizkien galdetegien erantzunetatik lortzen da. Bi sektore horien aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkurtzen ari den seinale.

# INGURU MAKROA

kutxabank gestión

# KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI…

| Data | Eremua | Adierazlea | Aurreik. |
|---|---|---|---|
| 09/10 | Japonia | Hiruhileko BPGd SA urtekotua | % 2,6 |
| 09/10 | Txina | Urte arteko KPIa | % 2,1 |
| 09/10 | Erresuma Batua | Balantza komertziala | -£2100 |
| 09/10 | Erresuma Batua | Urte arteko industria-ekoizpena | % 1.1 |
| 09/10 | Eurogunea | Sentix inbertsiogilearen konfiantza | 14.3 |
| 09/10 | Erresuma Batua | BPGd (MoM) | % 0.1 |
| 09/11 | Erresuma Batua | Erregistratutako langabezia | -- |
| 09/11 | Eurogunea | Urte arteko enplegua | -- |
| 09/11 | Alemania | ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta | 72.0 |
| 09/11 | Alemania | ZEW inkestaren aukerak | -13.0 |
| 09/11 | Eurogunea | ZEW inkestaren aukerak | -- |
| 09/11 | Estatu Batuak | Hileko handizkako merkataritza-salmentak | % 0.1 |
| 09/12 | Espainia | Urte arteko KPIa | % 2,2 |
| 09/12 | Eurogunea | Urte arteko WDA industria-ekoizpena | % 1,0 |
| 09/12 | Estatu Batuak | Liburu Beixa - Erreserba Federala | 0 |
| 09/13 | Alemania | Urte arteko KPIa | % 2.0 |
| 09/13 | Frantzia | Urte arteko KPIa | % 2,3 |
| 09/13 | Erresuma Batua | Banku-tasa Ingalaterrako Bankua | % 0.750 |
| 09/13 | Eurogunea | EBZren birfinantzaketa mota nagusia | % 0.000 |
| 09/13 | Eurogunea | ECB gordailuen organismoen tasa | -% 0.400 |
| 09/13 | Estatu Batuak | Urte arteko KPIa | % 2,8 |
| 09/13 | Estatu Batuak | Hasierako langabezia-eskaerak | 210k |
| 09/14 | Txina | Urte arteko xehekako salmentak | % 8.8 |
| 09/14 | Txina | Urte arteko industria-ekoizpena | % 6,1 |
| 09/14 | Japonia | Urte arteko industria-ekoizpena | -- |
| 09/14 | Eurogunea | Balantza komertziala SA | 16.2b |
| 09/14 | Estatu Batuak | Hileko industria-ekoizpena | % 0,3 |
| 09/14 | Estatu Batuak | Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea | 96.8 |
| 09/14 | Estatu Batuak | Oraingo egoera Mich. U. | -- |
| 09/14 | Estatu Batuak | Aukerak Mich. U. | -- |

# ASTE HONETAN MERKATUETAN

kutxabank gestión

**JRTSA:**

itsieren astea munduko burtsa nagusietan. Gainera, beste hin, Estatu Batuetako politika komertziala, gorakorren juruko zalantzak eta Europako egoera politikoa izan ziren erkatuaren arreta erakarri zuten gaiak. AEBek Txinako oduktuei 200.000 milioi dolarretan balioztatutako muga-rgak aktibatzeko aukerak eragin handia izan zuen erkatuetan. Gorakorrei buruzko zalantzek ere indizeen rtaera baldintzatu zuten. Turkian, bestalde, abuztuko lazioaren datua % 17,9raino igo izanak Banku Zentralak re hurrengo bileran tasen igoera bat egiteko aukerak nditu zituen. Argentinan, Mauricio Macri presidenteak fizita geldiarazteko eta merkatuen konfiantza rreskuratzeko neurri-sorta bat iragarri zuen. Gainera, rreko itun batean ezarritako baliabideen aurrerapen bat rne hartuko duen akordio berri bat negoziatzen ari da FDrekin, herrialdea astintzen duen finantza egoera nahasia inditze aldera. Beste tentsio iturri bat Hegoafrika izan zen, zeraldi teknikoan sartu baitzen, herrialdeko ekonomia bi uhilekoz jarraian uzkurtu zela baieztatu zenean. Horren dorioz, gainera, bere dibisak beherakada handiak izan uen. Merkataritza Librearen Itunari buruzko AEBen eta inadaren arteko negoziazio tirabiratsuak ere ez zuen pertsiogileen aldartea hobetzen lagundu. Brexitari gokionez, filtrazio batzuen arabera, baliteke Britainiako eta emaniako gobernuek euren eskakizunak baretu izana, ordio batera heltzea erraztuko lukeena.

**RRENTA FINKOA:**

daketarik handienak Italiako zorrean izan ziren. Izan ere, bernu berriak 2019rako aurrekontuetan defizitaren ntrol hobea egin duelako konfiantza handiagoak zor insalpinoaren erosketa sustatu zuen. Bi eta bost urterako rraren interesak 55 eta 51 op egin zuten behera, rrenez hurren; hamar urterakoa, berriz, 20 op jaitsi zen. or espainiarrean ere erosketek gora egin zuten, baina urri txikiago batean. Hamar urterako tasak op 1 egin zuen hera. Core zorraren kasuan, aldiz, errentagarritasunek ra egin zuten. Hamar urterako amerikarrak, esate terako, 8 op egin zuen gora, enpleguaren datu onak gunduta. Kredituaren diferentzialak, aldiz, estutu egin en.

**BISAK/LEHENGAIAK:**

ntsio komertzialen eta gorakorren egoeraren inguruko zkek eraginda, dibisa amerikarra babesgune seguru urtu zen. Lehengaiei begira, gerra komertzialak arritako tentsioek eta gorakorren inguruko rgabetasunek eragina izan zuten petrolioan prezioan, a azkenean % 0, 60 jaitsi zen. Urrearen balioa, bestetik, % 43 egin zuen atzera, 1.196,24 $/ontza mailaraino.

| INDIZEAK | PREZIOA | % Aldaketa Astean | Ald. % 2018 |
|---|---|---|---|
| MSCI WORLD (Local) | 1.630,11 | -1,60 | 2,77 |
| IBEX 35 | 9.171,20 | -2,42 | -8,69 |
| DJ EURO STOXX 50 | 3.293,36 | -2,93 | -6,01 |
| DJ STOXX 50 | 2.971,10 | -2,34 | -6,51 |
| FTSE | 7.277,70 | -2,08 | -5,33 |
| S&P 500 | 2.871,68 | -1,03 | 7,41 |
| Dow Jones | 25.916,54 | -0,19 | 4,84 |
| NASDAQ | 7.902,54 | -2,55 | 14,47 |
| NIKKEI 225 | 22.307,06 | -2,44 | -2,01 |
| MSCI GORAKORRAK (Lo | 57.224,75 | -2,61 | -6,00 |
| MEXBOL | 48.971,14 | -1,16 | -0,78 |
| BOVESPA | 76.416,01 | -0,34 | 0,02 |
| SHANGHAI | 2.829,85 | -0,84 | -18,29 |
| Errusia Rts Mosku | 1.050,51 | -3,82 | -9,00 |

| Gobernuen tasak | Maila | Aldaketa Astean | Ald. 2018 |
|---|---|---|---|
| ALEMANIA 2 URTE | -0,55 | 0,05 | 0,07 |
| ESPAINIA 2 URTE | -0,25 | 0,02 | 0,10 |
| AEB 2 URTE | 2,70 | 0,08 | 0,82 |
| ALEMANIA 10 URTE | 0,39 | 0,06 | -0,04 |
| ESPAINIA 10 URTE | 1,46 | -0,01 | -0,11 |
| AEB 10 URTE | 2,94 | 0,08 | 0,53 |
| ALEMANIA 30 URTE | 1,06 | 0,06 | -0,20 |
| ESPAINIA 30 URTE | 2,60 | -0,03 | -0,26 |
| AEB 30 URTE | 3,10 | 0,08 | 0,36 |
| **Kreditu-spreada (op)** | | | |
| MARKIT ITRX EUROPE 06/23 | 64,46 | -3,91 | 19,54 |
| MARKIT ITRX EUR XOVER 06/23 | 289,53 | -10,03 | 57,10 |

| Dibisak | Maila | %Aldaketa Astean | % Ald 2018 |
|---|---|---|---|
| Dolarra / Euroa | 1,16 | -0,29 | -3,83 |
| Yena / Euroa | 128,33 | -0,36 | -5,19 |
| Libera / Euroa | 0,89 | -0,05 | 0,60 |

| Lehengaiak | Maila | % Aldaketa Astean | % Ald. 2018 |
|---|---|---|---|
| Petrolioa (Brendt) | 76,69 | -0,60 | 14,77 |
| Urrea | 1.196,24 | -0,43 | -8,20 |

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.